

EHU-ko GIZARTE KONTSEILUAREN OSOKO BILKURAK ONIRITZIA EMAN DIO 552 MILIOI EURO BAINO GEHIXEAGOKO AURREKONTU BETEARAZIARI; ZENBATEKO HORREK %3,5eko URTEKO ALDAKUNTZA EKARRI ZUEN

Gizarte Kontseiluak EHUren 2025eko ekitaldiko urteko kontuak onartu ditu

Euskal Herriko Unibertsitatearen Gizarte Kontseiluaren Osoko Bilkurak, Josune Ariztondo lehen aldiz buru zela, ekainaren 24an onartu zituen Euskal Herriko Unibertsitatearen 2025eko ekitaldiko behin betiko kontuak.

EHUko Gizarte Kontseiluaren azken osoko bilkurak, udako oporrak baino lehen, 2025eko ekitaldiko behin betiko urteko kontuak onartu zituen. **Gauzatutako aurrekontua (aitortutako eskubide garbiak) 552,73 milioi eurokoa izan zen**, hau da, aurreko ekitaldian kontabilizatutako datuen aldean %3,52ko aldakuntza izan zen.

EHUko Gizarte Kontseiluaren Osoko Bilkurak ekainaren 24an onartutako auditoreen txostenaren arabera, Euskal Herriko Unibertsitatearen finantzaketa-bide nagusia, 2025ean, erakunde publikoek eta beste erakunde batzuek eragiketa arruntak finantzatzeko emandako transferentzia arruntetatik eta dirulaguntzetatik etorri zen. Tasak eta bestelako diru-sarrerak (zerbitzu-

salmenta, ezohiko itzulketak eta diru-sarrerak eta beste sarrera batzuk) **56,14 milioi eurokoak izan ziren, eta kapital-transferentziek 46,69 milioi eurokoak**.

Azpimarratu behar da euskal unibertsitate publikoaren finantzatzaile nagusia Eusko Jaurlaritza dela oraindik ere, 420 milioi euro ingururekin, ekarpen arrunten eta ordainsari-osagarriak finantzatzeko edo programa-kontratuaren gastu arruntak finantzatzeko beste ekarpen batzuen artean. Bestalde, Estatuak beste 32,4 milioi euro eman zizkion unibertsitate-aurrekontuari, eta Europar Batasunetik zetozen funtsek, berriz, ia 10 milioi euro. Azkenik, hiru foru-aldundietatik, udaletatik eta beste toki-erakunde batzuetatik etorritako transferentziak 4 milioi euro ingurukoak izan ziren.

EHUren gastuen ikuspegitik, langile-gastuak ordaintzea izan zen partida nagusia. Ekitaldia amaitzean, euskal unibertsitate publikoak 7.900 langile zituen, aurreko urtean baino 102 gehiago, irakasleen eta administrazioako eta zerbitzuetako langileen artean. **Partida hori 418 milioi eurotik gorakoa izan zen (urteko %2,87ko igoerarekin), hau da, gauzatutako aurrekontuaren %76.**

Unibertsitatearen beraren funtzionamendu-gastuak –energia-hornidura, konponketak edo beste enpresa batzuek egindako lanak– beste 79 milioi euro izan ziren (2024an baino %1,8 gehiago), guztizkoaren %21. **Inbertsio errealelara bideratutako zenbatekoa ere garrantzitsua da, 36.6 milioi euro, %16,4ko igoerarekin**, bai unibertsitateko instalazioak eraikitze edo mantentzeko, bai lan- edo ikerketa-materialetarako.

EHU 2025eko DIRULAGUNTZAK	Milioi eurotan
Nork emanak	Jasotako Transferentzia Arruntak
Eusko Jaurlaritza	419,70
Estatua	32,40
Europar Batasuna	9,90
Gipuzkoako Foru Aldundia	1,49
Bizkaiko Foru Aldundia	0,63
Arabako Foru Aldundia	0,40
Beste euskal erakunde publiko batzuk	0,00
Beste batzuk	1,60
Guztira	466,00

EHUk lau gradu berri eta beste lau master onartu ditu 2026/2027 ikasturterako

Ekainaren 24an, Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte Kontseiluaren Osoko Bilkurak oniritzia eman zion bere prestakuntza-eskaintza 2026/2027 ikasturterako hedatzeari, eta katalogo zabala ezarri zuen graduaurreko, graduako eta masterreko titulu propioen artean, bai eta beste prestakuntza-ekimen batzuk ere, hala nola mikrokredentzialak, unibertsitate-hedapeneko ikastaroak edo adinekoentzako unibertsitate-ikastaroak (esperientzia-gelak).

Titulazio berriei dagokienez, **EHUk 8 titulazio berri izango ditu datorren ikasturtean (4 gradu eta 4 master)**. Horietako batzuk EHUk bakarrik eskainiko ditu, hala nola Industriari aplikatutako Zibersegurtasuneko Ingeniaritzako Gradua, Telekomunikazio Teknologiako Ingeniaritzako Gradua eta Nautika eta Itsas Garraioko Gradua. Euskal unibertsitate publikoan emango den laugarren gradu berria Itsasontzien Makinak eta Mantentze-lanak da.

Bestalde, EHUn emango diren lau master berriak honako hauei buruzkoak izango dira: Hezkuntza Eleaniztuna (esklusiboki), Erasmus Mundus REM Plus2, Telekomunikazio Ingeniaritza (hori ere eskusiboa eta lanbide arauturako gaitzen duena), edo Kimika Teorikoko eta Modelizazio Konputazionalako Masterra. Gainera, osoko bilkurak beste sei titulu aldatu ditu (bi gradu eta lau master), eta beste sei kendu egin dira (3 gradu eta 3 master).

Gainera, EHUko Gizarte Kontseiluaren Osoko Bilkurak **hainbat titulaziotako mikrokredentzialen 90eko prezioa baliozkotzeko oniritzia eman zuen, EHUren prestakuntza-eskaintza jarduneko ikasleei eta langileei zabaltzeko**. Gehienak digitalizazioarekin eta ad-

ministrazio publikoarekin lotutako gaietara bideratuta daude. Onartutako mikrokredentzialen artean, honako hauek nabarmentzen dira: Medikuntza Aringarria asistentzia-bikaintasuneko horizonte gisa, XXI. mendeko museoen erronkak, edo Konputazio kuantikoa.

Unibertsitate Hedapeneko Titulu Propioei (Graduondoei) dagokienez, EHUko Gizarte Kontseiluaren Osoko Bilkurak **54 titulazioko zerrenda zabala onartu du, dagozkien prezioekin**, industria-eremuari (datuen analitika, ingurumena, jasangarritasuna eta GJHak, fabrikazio gehigarria, makina-erreminta eta industria digitala...), osasunari (arreta goiztiarra, ahoko kirurgia eta ahoko medikuntza, abdomeneko paretako kirurgia...), eta beste gai batzuei lotuta.

Era berean, gaurko saioan bertan, EHUko Gizarte Kontseiluaren osoko bilkurak **Unibertsitate Zabalpene-ko 16 ikastaroren** prezioak eta egitura onartu eta/edo baliozkotu ditu. Ikastaro berrien artean Osasuna Sustatzeko ikastaro bat edo Deep Learning for Speech Procesing (euskaraz) dago. Azkenik, Adinekoentzako Unibertsitate Ikastaroei dagokienez (Esperientzia Gelak izenekoak), Giza Zientzietako berezko titularen prezioei eustea erabaki da.

Josune Ariztondo EHUko Gizarte Kontseiluko presidentea izango da

Euskal Herriko Unibertsitatearen Gizarte Kontseiluak ekainaren 24an Bilbon egindako azken osoko bilkuran **Josune Ariztondo izan zen lehen aldiz buru**, azken 11 urteetan kargu hori bera bete duen **Joseba Agustín Eizagirre ordezkatu berri** zuena.

Josune Ariztondo, Zientzia Kimikoetan lizentziaduna Zaragozako Unibertsitatean eta Giza Baliabideen Kudeaketan graduatua Deustuko Unibertsitatean, Bilbao **700 Fundazioko zuzendaria, Bizkaiko Kultura diputatua, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea** eta EAJko Euskara eta Hezkuntza arloe-

tako arduraduna izan da. Gaur egun, Euskadiko Orkestraren eta Labayru Fundazioaren administrazio-kontseiluetako kide ere bada.

«Nire ibilbide profesionala –azaldu du Ariztondok Gizarte Kontseiluaren Osoko Bilkuraren hasieran– hezkuntzarekin, kulturarekin eta berrikuntzarekin lotuta egon da bereziki, eta arlo horiek erakutsi didate erakunde baliotsuenak direla konfiantza sortzen dutenak, talentua sustatzen dutenak eta pertsonen eta erakundeen arteko zubiak eraikitzen dituztenak. Uste sendo horretatik abiatuta ekin nahi diot etapa honi, bikaintasunarekin, ezagutza sortzearekin eta gizarteari zerbitzua ematearekin konprometituta dagoen unibertsitate publiko bat indartzen laguntzeko helburuarekin».

EHUko Gizarte Kontseiluko presidente berriaren iritziz, **Euskal Unibertsitate Publikoa «gure herrialdeko aktibo nagusietako bat da ezagutza sortzeko, belar-naldi berriak prestatzeko eta Euskadiren aurrerapen ekonomiko, sozial eta kulturalerako**. Euskadiren aurrerabideari egiten dion ekarpena ikasgeletatik eta laborategietatik askoz harago doa. Herritarrek hezten ditu, gure kultura zaintzen eta aberasten du eta etorkizuneko erronketarako erantzunak irudikatzen laguntzen du.



AZTERLAN HONEK, HALABER, ERRENDIMENDU HANDIENEO ADIERAZLEEN ARTEAN KOKATZEN DU EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAK

EHU da Eskualde Garapenari Laguntzeko eremuaren buru CyD Fundazioaren azken rankingean

Azken CyD sailkapenak Espainiako ia 85 unibertsitate sailkatzen ditu, eta erakusten du EHU liderra dela Eskualde Garapenerako Ekarpeneren eremuan, eta zenbait alderdi ebaluatzen dituela, hala nola ikasleek eskualdeko enpresetan egiten dituzten praktikak edo ikerketarako eskualde-funtsak erakartzea.

«CyD rankinga» –duela hamahiru urtetik Ezagutza eta Garapen Fundazioak urtero argitaratzen du eta **www rankingcyd.org** web-orrian kontsulta daiteke– Espainiako unibertsitate-sisteman eskuragarri dagoen ebaluazio- eta konparazio-tresna garrantzitsuenetakoa bat da. Dimentsio anitzeko ikuspegian du garrantzia; izan ere, erakundearen errendimendua eta unibertsitatearen jakintza-arloak neurtzeko aukera ematen du, eta horrek ikasleentzako erabaki fidagarriak hartzea errazten du, baina baita kudeatzaileen eta enpresen artean ere.

Ranking horrek Espainiako **84 unibertsitate (eta ia 4.000 titulazio eskaintzen ditu) sailkatzen ditu hogeita hamar parametro baino gehiagotan**, arlo hauek: irakaskuntza eta ikaskuntza, ikerketa, ezagutzaren transferentzia, nazioartekotzea, eskualde-garapenari egindako ekarpena edo laneratzea. Rankingari esker, erabiltzaile bakoitzak bere sailkapena egin dezake, ezagutu nahi dituen alderdiak hautatuz eta alderatuz (adibidez, unibertsitatea hautatzeko), unibertsitatearen arabera ranking bat eginez, edo jakintza-arloaren arabera segmentatuz, ikasketak egin nahi dituen autonomia-erkidegoa hautatuz.

Oro har, Euskal Herriko Unibertsitateari buruzko azken datuak positiboak dira. «CyD rankingak» EHU nabarmentzen du **eskualde-garapenari ekarpena egiteko lidergoaren eremuan, eta atal horretan Espainiako unibertsitate-multzoaren lehen postua hartzen du**. Horixe da, hain zuzen ere, EHUren zigilu bereizle han-


dia, euskal unibertsitate publikoa bere indargune sistematik nagusi bihurtzen duena, aurreko bi edizioetan arlo horretan lidergo-postuak betetzen baitzituen.

Dimentsio honek hainbat alderdi ebaluatzen ditu, hala nola ikasleek eskualdeko enpresetan egiten dituzten praktikak eta ikerketarako eskualde-funtsak erakartzea. Atal honetan, gainera, eskualdeko funtsak ikerketarako erakartzea, ingurunean eragina duen ezagutza sortzea eta ikasleek autonomia-erkidegoko enpresetan praktikak egitea aztertzen da.

Sailkapenaren egileek beren txostenean adierazten dutenez, EHU «*unibertsitate-aukera bikaina da, gradu-ko tituluen eskaintza zabala eskaintzen du, prestakuntza dualaren ereduaren aldeko apustua egiten du eta irakaskuntza arautuari enpresetan praktikak egiteko asmo handiko programa bat eskaintzen dio*». Era berean, adierazten dute euskal unibertsitateak «*graduondokoan eta doktoregoan oso prestakuntza espezializatua eskaintzen duela, bere baitan garatzen den ikerketa berean oinarrituta, ezagutza-arlo guztiak barne hartzen dituzten 290 ikerketa-talderen bitartez*».

2026ko edizio honetan txertatutako eremu berrian, EHU Ingurumen Zientziei eta Ingeniaritzari lotutako graduatan agertzen da, Kataluniako Politeknikarekin eta Bartzelonako Autonomoarekin batera. Sortzen ari den eta gizarte-eskaera handia duen eremu batean aitorpen horrek bere profil zientifiko-teknologikoa indartzen du.

TITULUDUNAK, JAKINTZA-ARLOAREN ARABERA



Euskadiren garrantzia

Unibertsitate-sailkapeneko egileek azpimarratu dute Euskal Autonomia Erkidegoa dela **errendimendu handiko adierazle gehien dituen hirugarren autonomia-erkidegoa**, Nafarroaren eta Kataluniaren atzetik. EHU Euskal Herriko unibertsitate publiko bakarra den eta euskal unibertsitate-sistemaren zatirik handiena biltzen duenez, emaitza horrek zuzenean islatzen du bere errendimendu erantsia.

Eskualde Garapenean Laguntzeaz gain, euskal unibertsitateak Irakaskuntza eta Ikaskuntza dimentsioan nabarmentzen dira, non Euskadi lehen hiru autonomia-erkidegoen artean agertzen den, Nafarroa, Madril eta Gaztela eta Leonekin batera. Horren ondorioz, EHU errendimendu handiko mailan kokatzen da hainbat adierazletan, hala nola ikasle/irakasle ratioan, arauzko denborako graduazio-tasan edo gaitututako kredituetan matrikulatutakoekin alderatuta.

AZTERLAN BATEK ERAKUSTEN DUENEZ, TEKNOLOGIA ESKURATZEAREN MENDE EZ EZIK, BARNE-PRESTAKUNTZAREN EDO BERRIKUNTZAREN ALDEKO KULTURAREN MENDE ERE BADAUDE ESTRATEGIA HORI HARTZEKO ARRAKALAK

ETeen erdiek adimen artifizialeko tresnen ezarpen-maila ertaina dutela ziurtatzen dute

Adimen artifiziala produktibitatearen benetako eragile bihurtu da ETEentzat. Duela gutxi egindako azterlan baten arabera, hamar enpresa txiki eta ertainetatik bederatzik dagoeneko ikusten dituzte lehiakortasun-hobekuntzak AAri esker.

Adimen **artifizialak promesa izateari utzi dio, eta ETEen arteko eguneroko errealitate bihurtu da.** Hala islatzen da The Adecco Group Institututek CEU – The Adecco Group katedraren esparruan egindako *‘La inteligencia artificial se convierte en el nuevo motor económico de las PYMES’* txostenean, tamaina guztietako enpresetako 600 arduradun eta zuzendarik baino gehiagok (1 eta 249 langile artean) emandako erantzunetan oinarrituta.

Azterlanaren egileek nabarmendu dute digitalizazioa ETE gehienen errealitatearen parte dela, **nahiz eta haien heldutasun-maila oraindik ere desberdina den.** AAri dagokionez, enpresen erdiek (%51,4) adierazi dute ezarpen-maila ertaina dutela. Maila altuak (%20,0) eta baxuak (%20,9) antzeko presentzia dute; konpainien %7,7k, berriz, oraindik ez du teknologia hori ezartzeko urratsik egin.

AAren onarpenean dauden arrakalak ez daude soilik teknologiarako sarbidearen mende, baita beste aldagai batzuen mende ere, hala nola barne-prestakuntza, berrikuntzaren aldeko antolaketa-kultura izatea, edo enpresa bakoitzaren aurretiko digitalizazio-maila, AAK erabilera sofistikatuagoetarantz aurrera egin ahal izateko beharrezko oinarri gisa. Gainera, AAren ezarpena handiagoa da plantilla gazteenak dituzten enpresetan, tamaina ertainekoetan, industria-sektorekoetan eta digitalizazio-maila handiena dutenetan. Aitzitik, ezarpenak txikiagoa edo ezdeusa

izateko joera du plantilla zaharragoak, enpresa-tamaina txikiagoa eta digitalizazio-maila txikiagoa duten konpainietan.

Bestalde, azterlanak azpimarratzen du AA azkarrago txertatzen ari diren arloak **merkataritza-jardueran eragin zuzena dutenak direla, hala nola marketina eta salmentak (%53,4) eta bezeroarentzako arreta (%47,5).** Ondoren, barne-eraginkortasuna duten eremuak daude (Finantzak/Plangintza, %36,9; Ekoizpena/Eragiketak, %36,5). Bestalde, pertsonen kudeaketa bezalako eremuetan duten presentzia oraindik ere hazteko tarte dago (Giza Baliabideetan, AAren sarrera-maila %22,5era baino ez da iristen).

Enpresari dagokionez, **10 inkestatutatik 7k uste dute AAko soluzioetan inbertitzeak itzulkin egokia sortu duela edo sortuko duela enpresarentzat.** AAK eragin positiboa izan duela bere konpainiaren jardun globalan (%69,7) eta bere enpresak datozen urteetan AAko inbertsioa handitzeko asmoa duela (%68,7). Datu horiek iradokitzen dutenez, **ETE askok jada ez dute ikusten AA joera esperimental gisa, baizik eta lanean eragina izateko gaitasuna duen palanka gisa.** Hau da, azterlanaren egileek agerian uzten dute gehienbat AArekiko jarrera positiboa dagoela, eta horrek aukera ematen diela enpresei. Ildo horretan, adierazten da interes horrekin batera prestakuntza, barne-komunikazioa eta erabilera-esparru argiak behar direla, itxaropenak ziurgabetasun bihur ez daitezen.

Produktibitatea hobetzea

Adecoren txostenak erakusten duenez, produktibitatea da ETEek AAren balioa argiago hautematen duten eremuetako bat, eta, horrela, kanpoko lehiakortasunerako tresna gisa finkatzen da, bezeroarekiko harremana hobetzeko eta ETEen merkataritza-aukerak handitzeko gai dena, bereziki erantzuteko eta pertsonalizatzeko gaitasun handiagoarekin konbinatzen denean.

Zuzendarien %86,6k uste du teknologia horrek eragina duela enpresaren produktibitate operatiboan. Zehazki, %48,9k uste du prozesu-denborak murrizten laguntzen duela; %46,0k uste du baliabideen erabileraren efizientzia hobetzen duela; %39,1ek uste du akatsak murrizten laguntzen duela; eta %33,4k uste du ekoizpen-bolumena handitzen ari dela.

Txostenaren egileek azpimarratzen dute AAK eraginak izaten ari dela enpresetako enpleguaren kan-

titatean eta egituran, nahiz eta datuek iradokitzen duten eraldaketa mailakatua dela lanpostuen ordezkapen orokorra baino gehiago. Kasuen %37,0an, AA profil profesional berriak sortzen laguntzen ari da, eta horrek erakusten du teknologiak automatizatu ez ezik, gaitasunen eskaera berriak ere sortzen dituela. Enpresentzat, beraz, **erronka izango da premia horiei aurrea hartzea, prestakuntza egokitzea eta plantillei aldaketan laguntzea.**

Enpleguaren kalitateari ere eragiten ari zaio. Enpresen %80k adierazi dute AAK zenbait alderdi eraldatzen dituela, hala nola lan-karga (iritzien %44,5), lan-baldintzak hobetzea edo okertzea (%31,3), eskatutako kualifikazio-maila (%29,1), lan-egonkortasuna (%26,2) eta soldadak (%17,3). Irakurketa horrek erakusten du AAren eragina ez dela produktibitate-ra mugatzen, lan-esperientziaren funtsezko dimentsioetara baizik.